

# LOGELAK

Lauki karratu hori, goizetan ekialde urrunetik eguzkia irensten duena. Handi eta borobil sartzen da eguzkia goizero Igartubeitiko logela nagusian. Lainotuta dagoenean ere bai. Goxo egiten die laztan egur-mintzei eta ia-ia baimenik eskatu gabe urratzen ditu lurreko itzalak. Martintxo ondo kukututa oheratzen da bere bi anai-arreben ondoan eta aitonak eta amonak ere logela berean egiten dute lo. Gaur, ordea, goizean goizetik jakinarazi die amak ondoko logelan egin beharko dutela lo denek gauean.

- Zergatik, ama?
- Bidaiari gonbidatuak iritsi dira eta ostatu eman behar diegu. Logelako atetik sartuko dira zuzenean.

Sukaldetik pasa beharrik gabe, kanpotik logela barrura zuzenean sartzeko ate bat dago.

- Ama, eta nola kabituko ara denok bi ohetan?
- Elkarri estu-estu lotuta. Gaur gauean ez dugu hotzik pasako, txiki.

Eta une horretan, Martintxo, logela nagusiko lurrean ezkutuan dagoen zuloarekin gogoratu da. Begiak jarri ditu ezkutukoak ezkututzen dituzten oholen gainean. Aitonari galdetu zion behin ea zertarako zulo hori. Eta aitonak sssssssssssssssssssss erantzun zion hatz erakuslea ezpainen parean jarrita. Ez zion ezer esan. Entzuten den isiltasuna baino sekretu handiagorik!

Oholei begira gelditu da Martintxo. Sartu egingo da. Hori bururatu zaio. Oholak altxa eta sartu egingo da zuloan. Hori bururatu zaio, eguzki bihurtuko dela iluntasunean. Ea

